

# **Ikasgeletatik espazio publikora**

**Euskal Herrian  
arte garaikidearen  
inguruan egindako  
titulazio amaierako  
lanen bilduma bat.**

**Artium  
(Vitoria-Gasteiz)  
2021eko urriaren  
20an eta 21ean**

**Deialdia  
Bigarren jardunaldiak**

# Aurkezpena

Artiumek, UPV-EHUko (GIU18/153) *Giza artea* ikerketa-taldeak eta unibertsitate bereko Artearen Historia eta Musika Sailak azken urteotan arte garaikidearekin lotuta Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Akitaniako (Frantzia) unibertsitateetan eta goi-mailako hezkuntza-erakundeetan egin diren Gradu Amaierako Lanak (TFG), Ikasketa Amaierako Lanak (TFE) edo Master Amaierako Lanak (TFM) ezagutzera emateko antolatu dituzte jardunaldiok.

Jardunaldi horietan askotariko espezialitateetako lanek dute tokia (edozein diziplina artistiko, artearen historia, filosofia eta estetika, antropologia, soziologia, arte-hezkuntza, ikus-entzunezko komunikazioa, etab.), proposamen eta lengoia artistiko garaikideekin harremana badute.

Ikasgeletan sortutako ekarpen horiek zabaltzeaz gain, sortutako artistiko garaikidearen inguruan hainbat diziplina eta jakintza-arlotako graduatuen arteko topagune bat sortu nahi dute jardunaldiek.

## Programa

Jardunaldiak Artiumen egingo dira. Programa irekiko duen inaugurazio-hitzaldi baten ondoren, parte-hartzaile bakoitzak –batzorde zientifiko batek aldeztu aurretik hautatua eta aukeratua, parte hartu ahal izateko aurkeztu behar duten titulazioaren amaierako lanaren laburpen batean oinarrituta– 20 minutu izango ditu bere lanaren emaitza nagusiak ezagutarazteko. Esku-hartzeak gaikako kidetasunen arabera multzokatuko dira, eta eztabaida-mahaiak sortuko dira hizlarien eta bertaratutako publikoaren artean elkarrizketak egin ahal izateko.

Jardunaldietan zehar, gela bat antolatuko da parte-hartzaileek performanceak, ikus-entzunezko proiektzioak edo kontzertu txikiak egin ahal izan ditzaten, baina ekoizpen-hornidurarik gabe. Esku-hartze horiek aldeztu aurretik programatuta egon beharko dute; beraz, ezinbestekoa izango da erakundearekin behar besteko aurrerapenean harremanetan jartzea, esku-hartze horien xehetasunak zehazteko.

## Oinarriak

- Sorkuntza artistiko garaikidearekin lotutako titulazio amaierako mota guztietako lanak aurkeztu ahal izango dira, espezialitate edo modalitate murrizketarik gabe.
- Hautatutako lanak 2018/2019 eta 2019/2020 ikasturteetan defendatu behar izango dira, eta 10 puntutik 7,5eko gutxieneko nota jaso behar izango dute.
- Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako edo Frantziako Akitania eskualdeko edozein unibertsitatetan edo goi-mailako hezkuntza-erakundetan egindako era guztietako lanak aurkeztu ahal izango dira.
- Euskarazko, gaztelaniazko eta frantsesezko lanak onartuko dira.
- Jardunaldietan parte hartu nahi dutenek proposamen bat bidali beharko dute 2021eko maiatzaren 25a baino lehen, datu pertsonalak (izen-abizenak, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefonoa), lan-oharraren justifikazioa eta 500 hitzeko laburpen bat (orrialde bat gutxi gorabehera) helbide elektroniko honetara: [actividades1@artium.eus](mailto:actividades1@artium.eus)
- Jasotako eskabideak batzorde zientifiko batek ebaluatuko ditu, parekoen balioztatze-sistemaren bidez. Onartu diren parte-hartzaileei jardunaldietan parte hartuko dutela jakinaraziko zaie, harremanetarako eman duten helbide elektronikoaren bidez, ekainaren 30a baino lehen. Behin betiko programa 2021eko irailean argitaratuko da.
- Esku-hartzea onartu ondoren, performanceak, kontzertuak edo ikus-entzunezkoen erakusketa egiteko gordetako aretoan lana erakutsi nahi duten parte-hartzaileek jardunaldien antolatzaileekin harremanetan jarri beharko dute ekarpen horien xehetasunetan ados jartzeko.

## Egutegia

- Proposamenak aurkezteko azken eguna: 2021eko maiatzaren 25a.
- Onarpenaren jakinarazpena: 2021eko ekainaren 30a baino lehen.
- Jardunaldiak: 2021eko urriaren 20an eta 21ean.